

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

OSASUN SAILA

5092

IRAGARKIA, zehapen-prozedurei hasiera emateko Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria hartu dituen erabakiak jakinarazteko dena, COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko hartutako prebentzio neurrien arloan.

Ezinezkoa izan da zehapen-espeditenteak irekitzeko erabaki horiek aurrez aurre jakinaraztea, eta, horregatik, iragarki hau argitaratzen da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

1.— Interesdunak 15 egun balioduneko epea du, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, espedienteaz aztertzeko, Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan (Antso Jakitunaren kalea 35, Donostia / San Sebastián); bere defentsarako egokitzen jotzen dituen alegazio, agiri eta informazio guztiak aurkezteko; eta, hala badagokio, prozeduran erabili nahi dituen frogak proposatzeko.

2.— Adierazitako epean zehapen-prozedurari hasiera ematen dion erabakiaren edukiari buruzko alegaziorik egiten ez bada, hasiera hori bera izango da ebazpen-proposamena, eta, hala badagokio, zehapen-ebazpenaren aurreko instrukzio-izapide guztiak egin direla ulertuko da.

3.— Isuna jakinarazpen honen ondorengo 15 eguneko epean ordaintzen badu, zenbatekoa 39/2015 Legearen 85. artikuluan aurreikusitako deskontuen arabera murriztuko da. Ordainketa-gutuna iragarki honen 1. puntuan adierazitako helbidean eskatu ahal izango du.

Eranskinean aipatutako interesdunak jakinaren gainean egon daitezen argitaratzen da hau, eta banakako jakinarazpenaren balioa izango du haientzat.

Jakinazpen honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Donostia / San Sebastián, 2021eko irailaren 14a.

Gipuzkoako Osasuneko lurralde-ordezkaria,
JUAN MANUEL SANZO OLLAKARIZKETA.

ERANSKINA

NAN/IFZ/AIZ	Erreferentzia
72503102H	G 379 2021 COVID
X6246658L	G 381 2021 COVID
72580983K	G 696 2021 COVID
X8725315N	G 855 2021 COVID
72488462Y	G 860 2021 COVID
15993378Y	G 892 2021 COVID
Y1036964T	G 901 2021 COVID
Y1690678P	G 984 2021 COVID
LA132509	G 990 2021 COVID
44343417S	G 1388 2021 COVID